

Jakinarazpena:

Irabazi xederik gabeko elkarteei diru laguntzak emateko **behin betiko erabakia**

Erabakiaren datuak:

Eguna	2015/05/22
Organoa	Tokiko Gobernu Batzarrak

Tokiko Gobernu Batzarrak, goian aipatzen den egunean, **ondoko hau erabaki du:**

Herri Partaidetza Zerbitzuak ikusirik elkarteek beren helburuak lortzeko egiten duten lan handiaren bidez Donostiaren kalitate urbanoa eta ongizatea hobetzen zuzenean eragiten dutela, diru laguntza batzuk ematea proposatzen du, bere aurrekontu baliabideen eta Gobernu Batzarrak **2015eko urtarrilaren 9an onartu eta 2015eko urtarrilaren 15ean, G.A.O. 9. zb**, argitaratu ziren arauen arabera, herritarren partehartzea sustatzen eta garatzen duten proiektuak egiten dituzten entitateentzat, bai eta hiriko auzoetan ekintza komunitarioak egiten dituztenentzat ere.

Eskabideak egiteko epea pasa ondoren, oinarrietan jarritako irizpideei begiratu eta egindako eskabideak aztertu ditu izapideak egin dituen organoak. Hala, eskabideak baliotsi eta txostena egin du, behin-behineko ebazpen proposamena duena. Ondoren, gai hau aztertzeko eraturako Balorazio Batzordeak organo izapidegilearen balorazioa aztertu du, eta behin-behineko ebazpena Udalaren webean eta iragarki oholetan argitaratu da, eta legeak jartzen duen epea eman zaie entitateei egoki jotzen dituzten helegiteak egiteko bidea izan dezaten.

Epe horretan entitateek ez dituzte helegiteak aurkeztu.

Azterketa eta ondorioak Balorazio Batzordeak eginiko txostenean jasotzen dira.

Eranskin honetan izandako soberakinaren aurrean, 7.678,00€, 2.2. eranskineko diru laguntzetarako xedaturiko zenbatekoa gehitzeko erabiliko da, berriazko oinarri hauek 9. artikuluan xedatzen duten moduan.

Hala, Gobernu Batzarrak eskuordetzan emandako aginpidea erabili eta haxe da Informazioko, Partaidetzako eta Ingurumeneko Zinegotzi Ordezkarri honek Gobernu Batzarrari proposatutako



### ERABAKIA:

1.- Ondoren aipatzen diren entitateen diru laguntza **eskaerak uko egintzat hartzen direla** dagokion ebazpenaren bitartez, azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera, ez dutelako dagokien eskaera behar bezala zuzendu, horretarako emandako epean.

Entitatea	IFZ	Proiektua
Zubietako Herri Batzarra	G20581492	Frontoi kanporaldeko paretaren margoketa, herritarren artean
Zubietako Herri Batzarra	G20581492	V.Zubietako Mendi Duatloia

2.- Ondoren azaltzen diren entitateei taulan azaltzen diren diru laguntzak **ematea**, 2015eko urtarrilarren 15eko GAOn argitaratutako deialdiaren oinarrien 2.1 eranskinaren arabera, denon intereseko gaietan herritarren parte hartzea sustatzen duten proiektuak:

Elkartea	IFZ	Proiektua	Lortutako puntuak	Diru laguntza kopurua
25 Geltokia	G75106989	Añorgako eragileen arteko elkarlana sustatzeko proiektu komunikatiboa	23	150€
AVV Osteguna Auzo Elkartea	G20491767	Revista Osteguna	22	2.100€
Altza XXI Herri Ekimena	G20848370	Elkarrizketarako eta ekintzetarako espazioak ireki Auditx-Akular zonaldearen inguruan	25	2.500€
Egia Bizirik Elkartu	G20801502	www.bonifazioaegunon.com	20	130€
	G20092326	Participación Ciudadana como medio de promoción de la autonomía personal de las personas con discapacidad física	47	4.694€
Herripe Auzo Elkartea	G20187746	Herrerako bialaren azpialdeko hobekuntzarako auzolana	24	2.400€
Igeldoko Herri Kontseilua	G20578258	2015eko Igeldoko Egitasmoak	44	3.950€
Uliako Auzo Elkartea	G20066692	Ulia Donostiarrok ikusita	51	3.000€
Urumea Ibaia Auzo Elkartea	G20889051	Lanak bukatu-Loiola existe	21	1.120€



**3.- Oinarrien arabera, honako eskaerak baztertzea** ondoren azaltzen diren arrazoiak azalduz:

Entidad	IFZ	Proiektua	Arrazoa
Aieteko Auzotarren Elkartea LANTXABE	G20769295	Potenciar la difusión de los usos Página "www.aiete.net"	Ez da diru laguntza deialdi honen xede, baina espedientea 2.2 eranskinera bideratu da hainbat gastu mantenukoak izan daitezkeelakoan
Amarabai Udalgintza Elkartea	G20803284	Amara Saretzen	Ez da gauzagarria. Ez dago koherentziarik deskribapen orokor, helburu, ekintza eta aurrekontuaren artean
Amarabai Udalgintza Elkartea	G20803284	Amara Auzotik mundura	2.2ra bideratu da espedientea
EKIAN	G75086181	Bizitzeko eredu jasagarri kolektiboetarako espazioak eraikiz	Ez da diru laguntza deialdi honen xede. "Partaidetza" ez dago egituratua, aipatzen duten komunitatea proiektuan parte hartuko duen pertsonak besterik ez dira (ez du eztabaida irekitzen auzo edota hirira), ez da txertatu inongo atalean (gai sustantiboa) eta ez dirudi gauzagarri.
LANBERRI	G20208799	Creación de página web "Txomin-Enea"	2.2ra bideratu da espedientea
SCR Baso Etxea	G20107066	Tamborrada 2015	Ez da diru laguntza deialdi honen xede.
Sociedad Recreativa LA ESPIGA	G20923744	Tamborrada La Espiga	Ez da diru laguntza deialdi honen xede.
Urumea Ibaia Auzo Elkartea	G20889051	Loiola Bizirik-Komertzio txikiarekin bat	Ez da diru laguntza deialdi honen xede. Berariazko oinarriek 2.1 artikuluan adierazten duten moduan, <i>kanpo geratuko dira Parte hartze prozesuei loturik ez dauden zabaltze, komunikazio eta informazio kanpainak...</i>
Urumea Ibaia Auzo Elkartea	G20889051	Urumea Ibaia Auzo Elkartea indartzen	Ez da diru laguntza deialdi honen xede, baina espedientea 2.2 eranskinera bideratu da hainbat gastu mantenukoak izan daitezkeelakoan
M-etxea Arkitekturaren Ikerketa Elkartea	G75021717	M-etxea espazioa zabaltzen	Ez da diru laguntza deialdi honen xede. Berariazko oinarriek 2.1 artikuluan adierazten duten moduan, <i>kanpo geratuko dira entitate barruko dinamizazio sozio-kulturaleko proiektuek zein urte osoko programek...</i>

**4.- 2.1. eranskineko aurrekontuaren soberakina**, 7.678,00€, **2.2. eranskineko deialdira gehitzea**, berariazko oinarri hauetako 9. Artikuluak aurreikusten duen moduan.


**5.-** Finantza Zuzendaritzaren Diruzaintza Burutzak **onarpenera eman diezaiola kopuru horiek ordaintzeari** diru laguntzak arautzeko oinarrietan jarritako eran (2.1. eranskineko 7. art.: %70 Gobernu Batzarrak onartutakoan eta beste %30a ekarri beharreko egiaztagiria ekarri eta gero).

**6.- Gastua (20.044,00€)** 2015eko gastuen Aurrekontu Orokorreko Herri Partaidetza Zerbitzuko 481.01 kontu sailari **eranstea**

**7.-** Erabaki hauek udal iragarki-oholean argitaratuz **jakinaraztea**.

Donostia, 2015eko maiatzaren 22a

Amaia Agirreolea Gómez  
HERRI PARTAIDETZA ZERBITZUAREN BURUA



3/3